



JUAN DE ALCEGA

JOSTUN UNIBERTSALA
SASTRE UNIVERSAL




EUSKAL MUSEO
ITSAS MARÍTIMO
MUSEOA VASCO

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



GORAIN
KULTURA



Juan de Alcegaren liburuko azalaren detailea.
Detalle de la portada del libro de Juan de Alcega.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
KULTURA



ERRENAZIMENTUKO GIZONA

Jantziak eta janzkerak historiaren isla zehatza dira. Errenazimentuak erdigunean jarri du gizakia, eta jantzia estutu egin da, Erdi Aroan zehar ezkutuan egon zena erakustearren. Trajeak egiteko arrazoia, soinean daramatzatzenen ezaugarriak eta boterea nabarmentzea da, eta jostunak figura nagusiak dira gorte eta jauregietan.

Joan Altzega Errenazimentuko gizona izan zen, benetan. Gaur egun pertsonaia ia-ia ezezaguna bada ere, jostun eta matematikari hori goi mailako jostintzaren aitzindaritzat har dezakegu. Gainera, Europako jostintzari buruzko lehen tratatu bat argitaratu zuen. Bere garairako aurreratuta egon zen horretan, argi eta garbi, bere jakintza partekatzearen garrantzia ulertu baitzuen, beretzat edo bere dizipuluentzat gorde beharrean.

1580an argitaratutako lana benetako eskuliburua da garai hartako jantziak egitera begira; oihal galerak saihesteko eta etekinik onena lortzeko aholkuak ere ematen ditu. Jarduera horretan, Altzega duin asko erakusten du Euskal Herriaren espiritu ekintzailea. Izan ere, bitarteko eskasiari aurre egiteko jakintza eta lana baliatzeaz gain, beste lurralde eta mugetan aukerak ikusten ditu. Gure protagonistak nabarmendu egiten du bere garaiko ehunaren industriak eta merkataritzak duten garrantzia ezen, itsas ibilbideen bitartez, Euskal Herriko portuak Europa eta Amerikarekin lotzen zituzten.

“Jostun unibertsala” erakusketak lagundu egingo digu Joan Altzegaren bizitza eta obra hobeto ezagutzen, eta aukera emango digu, halaber, haren egunerokotasunaren bidez gure historiako pasarte batean murgiltzeko.

UN HOMBRE DEL RENACIMIENTO

La indumentaria y la forma de vestir es fiel reflejo de la historia. El Renacimiento pone al hombre en el centro y la vestimenta se ciñe para mostrar lo que durante la Edad Media permaneció oculto. Los trajes se construyen para destacar las cualidades y el poder de quienes los visten, y los sastres se convierten en figuras principales en cortes y palacios.

Juan de Alcega fue un verdadero hombre del Renacimiento. Aunque hoy resulte un personaje prácticamente desconocido, este sastre y matemático puede ser considerado como un precursor de la alta costura que publicó uno de los primeros tratados de sastrería de Europa. Fue en esto un verdadero adelantado a su tiempo que comprendió la importancia de compartir sus conocimientos, en vez de reservarlos para sí o sus discípulos.

La obra publicada en 1580 es un verdadero manual para la elaboración de las prendas de la época, que incluye consejos para evitar las pérdidas de tela y obtener el mejor rendimiento. Alcega es en esto un digno representante del espíritu emprendedor del País Vasco que hace frente a la escasez de recursos con conocimiento y trabajo, y que ve en otras tierras y fronteras espacios de oportunidad. Nuestro protagonista pone también en valor la industria textil de la época y su comercio, que mantenía los puertos del País Vasco conectados a través de rutas marítimas con Europa y América.

La exposición “Sastre universal” nos ayuda a conocer mejor la vida y la obra de Juan de Alcega, y nos brinda también una oportunidad para adentrarnos en un pasaje de nuestra historia a través de sus hechos cotidianos.

Denis Itxaso

Kultura eta Turismoko diputatua / Diputado de Cultura y Turismo
Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa



Agian norbaitek pentsatuko du zer dela eta antolatu duen Euskal Itsas Museoak jostun baten inguruko erakusketa bat. Zer harreman izan dezake Ernanin jaio eta bere karrera gortean garatu zuen Juan de Alcega jostunaren bizimoduak euskal itsas historiarekin?

Galdera honi erantzuna emateko lehenik eta behin erakusketa honen jatorriaren nondik norakoak azaldu behar ditugu. Gaur egun itsas ondarearen baitan mundu mailan garatzen ari den egitasmorik nagusienez bada nagusienetakoa Albaolarena da. Hortxe, Pasaian, Museo honetatik kilometro oso gutxitara, munduko itsas ondare ekintzaile nagusienetako askoren begiradapean eta kolaborazioarekin, dagoeneko nazioartean ezinbesteko erreferentzia bilakatu den egitasmoa ari da gertatzen. Eta Euskal Itsas Museoak garen heinean ekimen honen berri eman eta partaide izan behar dugu. Ekimen horren helburua ez da XVI. mendeko San Juan baleontzia honela edo hala berreraikitzea, iraganeko itsas jarduera handitsu haien atzean zeuden ezagutza, logika eta praktika inmaterialak berreskuratzea baizik. Eta ezagutza, logika eta praktika horietako bat orduko marinela eta arrantzaleen janzkerari dagokiona da.

XVI. mendeko euskal itsasgizon haien janzkerak berreskuratzea Albaolaren egitasmo zabalaren helburuetako bat izanik, Ingalaterrako The Tudor Tailor elkartearekin batera Juan de Alcega project

izeneko egitasmoa jarri dute abian. Elkarrekin honen helburua XVI. mendeko janzkerak berreskuratzea da eta horretarako, besteak beste, erabiltzen dituzten bi iturri nagusienak Kanadako Red Bay-en arkeologoek aurkitutako euskal marinelen jantziak eta Juan de Alcegaren munduan lehen aldiz 1580an argitaratutako joskintzari buruzko liburua dira.

Euskal Itsas Museoaren ardura daukagun taldekideok beti aldarrikatu ohi dugu Euskal Herriko eta batez ere Gipuzkoako historia eta ondarea, itsas historia eta ondarea direla. Beraz, Albaolaren egitasmoa hurbiltzeko egin behar horretan zeharo logikoa eta beharrezkoa iruditu zitzaigun, esan bezala mundu mailan funtsezkoa den arren gure artean ia erabat ezezaguna den Juan de Alcegaren eta goi mailako euskal joskintzaren inguruko erakusketa hau antolatzea.

XVI eta XVII. mendeetako euskal joskintzak eta goi mailako jostunek ere gure itsas historiarekin harreman estua dutela iruditzen zaigu. Batetik, mende haietako euskal itsas gizarteak barneratua zuen espiritu ekintzailearen eta jarduera ekonomikoak antolatzeko erabiltzen zituen logiken ordezkari handiak ditugu Juan de Alcega bezalako goi mailako jostunak. Bestetik, garai hartako euskal itsas ekonomiak ehungintzarekin eta ehun komertzioarekin zuen harremana oso estua zen eta azken hau funtsezkoa izan zela aldarrikatu nahi dugu Alcegaren mailako jostunak gure lurraldean sortzeko.

Quizás alguien se preguntará acerca de la razón de que el Museo Marítimo Vasco organice una exposición en torno a un sastre. ¿Qué relación puede tener la historia marítima vasca con la biografía de Juan de Alcega, un sastre nacido en Ernani y que desarrolló su carrera en la Corte?

La respuesta a esta cuestión pasa por conocer los prolegómenos de esta exposición. A día de hoy el proyecto que desarrolla Albaola constituye, sin duda, una de las principales iniciativas que a nivel mundial se están llevando a cabo en relación con el patrimonio marítimo. En Pasaia, a pocos kilómetros desde nuestro Museo, se está emprendiendo una iniciativa que constituye ya un referente internacional indispensable y que cuenta con la supervisión y la colaboración de muchos de los máximos impulsores del patrimonio marítimo mundial. Siendo el Museo Marítimo Vasco nos vemos en la obligación de hacernos eco de esa iniciativa y de ser partícipes en la misma. Su objetivo no es reconstruir de alguna manera el ballenero del siglo XVI San Juan, sino recuperar los conocimientos, las lógicas y las prácticas de carácter inmaterial que hicieron aquellas grandiosas gestas marítimas del siglo XVI. En ese sentido, las vestimentas que usaban aquellos marineros y pescadores constituye una parte de esos conocimientos, lógicas y prácticas que se pretenden recuperar.

Siendo la recuperación de las vestimentas de los hombres de mar del siglo XVI uno de los que componen el amplio abanico de objetivos de la iniciativa de Albaola, viene desarrollando un proyecto, Juan de Alcega project, en colaboración

con la asociación inglesa The Tudor Tailor. El objetivo de esta entidad es la recuperación de las vestimentas del siglo XVI. Entre sus principales fuentes de información destacan dos que tiene estrecha relación con el País Vasco: las ropas de los marineros vascos recuperados por los arqueólogos en Red Bay (Canadá) y el libro de Juan de Alcega que supone el primer tratado de sastrería publicado en la historia, el año 1580.

Los miembros del equipo del Museo Marítimo Vasco ponemos de manifiesto siempre el carácter marítimo de toda la historia y del patrimonio vasco y, en especial, guipuzcoano en su conjunto. Por tanto, en ese propósito nuestro de acercamiento a las iniciativas de Albaola, resulta indispensable, además de absolutamente lógico, organizar esta exposición sobre Juan de Alcega y la alta costura vasca, máxime cuando entre nosotros son casi unos perfectos desconocidos a pesar de su carácter fundamental a nivel mundial.

Debemos recalcar que los principales sastres y la alta costura vasca de los siglos XVI y XVII tiene estrecha relación con nuestra historia marítima. Por una parte, los grandes sastres como Juan de Alcega son máximos representantes del espíritu emprendedor y de las lógicas bajo las que se organizaban las actividades económicas, características de la sociedad de entonces. Por otra, planteamos la hipótesis de que las estrechas conexiones entre la economía marítima vasca y la industria y el comercio textil resultaron factores de mucho peso para el surgimiento en nuestro territorio de sastres de la talla de Alcega.



JUAN DE ALCEGA

JOSTUN UNIBERTSALA
SASTRE UNIVERSAL



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA

MUSEO
MARÍTIMO
VASCO

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
KULTURA

BERPIZKUNDEA JAZTEN	01 13	VISTIENDO EL RENACIMIENTO
OIHALAK	02 19	LOS TEJIDOS
Oihalgintzaren garrantzia estrategikoa XVI. mendeko Europan. Europako manufaktura Oihalen komertzioa Euskal Herrian Euskal oihalgintzaren garrantzia eta arazoak Euskal liho oihalgintza		La importancia estratégica de la industria textil en la Europa del siglo XVI. La manufactura en Europa El comercio textil en el País Vasco Importancia y problemas de la actividad textil vasca Fabricación vasca de tejidos de lino
ARTILEA	03 29	LA LANA
Gaztelako artilea eta Burgosko merkatariak Gaztelako artilea eta euskal bale-olioa Artile komertzioa eta San Juan baleontzia		Lana castellana y comerciantes burgaleses Lana castellana y saín vasco El comercio de la lana y el ballenero San Juan
MUNDUKO KOLOREAK	04 37	COLORES DEL MUNDO
JUAN DE ALCEGA	05 43	JUAN DE ALCEGA
Joskintzan aitzindari nagusia Juan de Alcega eta euskal jarduera ekonomikoan arrazionalizazioa Jatorria Gortean karrera Alcegaren helburuen aurkako interesak Ekarpen zientifikoa Juan de Alcegaren nazioarteko eragina		El principal precursor de la sastrería Juan de Alcega y la racionalización de la actividad económica vasca Origen Carrera en la Corte Intereses contrapuestos a los objetivos de Alcega Aportación científica La repercusión internacional de Juan de Alcega
EUSKAL JOSKINTZA	06 61	LA SASTRERÍA VASCA
Euskal jostunak Berpizkunde garaiko joskintzaren goi mailan Euskal joskintzaren garapenaren arrazoiak		Sastres vascos en la alta costura del Renacimiento Causas del desarrollo de la sastrería vasca
JUAN DE ALCEGA PROJECT	07 69	JUAN DE ALCEGA PROJECT

01

**BERPIZKUNDEA
JAZTEN**

**VISTIENDO
EL RENACIMIENTO**



Ezkon-hitza.
Los esposales.

FRANCISCO DE MENDIETA
Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa
1607

Janzkera-estilo ezberdinen aukeraketak eta luxuzko jantzien erabilerak beti boterearekin harreman estua izan dute.

Jantziak boterearen, indarraren eta aberastasunaren adierazle izan daitezke.

Berpizkunde garaian ordurarte inoiz ikusi gabeko jantzi aberats eta handitsuak hasi ziren erabiltzen.

Erreinu boterea berenganatzeko eginbeharretan ari ziren erregeek, jantziak, pitxiak, kosmetikoak, jauregiatiko apaingarriak eta ospakizun handitsuak erabili zituzten beren nagusitasuna aldarrikatzeko.

XVI. mendean Espainia zen Europako erreinu boteretsuena eta hori behar bezala aldarrikatzeko Ameriketako aberastasunek aukera ia mugagabea eskeintzen zuten. Gorteetan geroz eta jantzi oparagoak erabiltzen zituzten garai hartan, espainiarren janzkera-estiloa hedatzen hasi zen Europa osoan, boterearen adierazle modura.

Espainiar estiloaren eragin hau sakonagoa izan zen, noski, Espainiako erregearen eta Habsburgotarren menpeko lurralde katolikoetan.

Estilo honen ezaugarri nagusia jantzi zurrunak, serioak eta ilunak, batez ere beltzak, erabiltzean zetzan.

Kolore beltzeko jantzi hauek, itxura batean apalagoak baziuriditen ere, luxuzko oihalez eginak zeuden eta pitxi aberatsez hornituak. Kolore beltza boterearen, indarraren eta seriotasunaren adierazle zen.

Ingalaterra, Flandria edo Alemaniako protestanteek ere espainiar estiloa bereganatu zuten eta XVII. mende ia osoan zehar espainiar estilotik eratorritako arropa beltzez jazten jarraitu zuten.

Frantziar eta Italian aldiz, XVII. mendean estilo arinagoa eta koloretsuagoa erabiltzen zuten eta bertatik eratorri zen Luis XIV.ak ezarriko zuen frantziar estilo handitsua, mende honen amaieraz geroztik, eta batez ere XVIII. mende hasieraz geroztik Europa osora zabalduko zena.

Euskal Herriak izan zuen zeresana janzkera estilo handitsu hauen hedapenean. XVI. mendean geroztik emakumeen janzkeretan egitura

La adopción de diferentes estilos y la utilización de lujosas prendas de vestir han constituido siempre actos estrechamente ligados al poder.

Las vestimentas pueden servir para expresar poder, fuerza y riqueza.

En el Renacimiento se comenzó a utilizar ricos y opulentos vestidos hasta entonces nunca vistos.

Las monarquías en su cometido de aglutinar el poder político hacían uso de vestimentas, joyas, cosméticos, adornos palaciegos y grandes celebraciones para reivindicar su majestuosidad.

Durante el siglo XVI España era el reino más poderoso de Europa, y las riquezas provenientes de América posibilitaban su demostración de manera casi ilimitada. En las diferentes cortes de aquella época se utilizaban trajes cada vez más lujosos, y el estilo de la monarquía española se fue expandiendo por toda Europa como expresión del poder.

Sin lugar a dudas, la influencia del estilo español fue más notoria en los territorios católicos dependientes del rey de España y de los Habsburgo.

Este estilo se caracterizaba por la seriedad y la rigidez de las vestiduras, donde predominaban los colores oscuros, sobre todo el negro.

Aunque pudieran parecer prendas sencillas, estaban elaboradas con telas lujosas y adornadas con ricas joyas. El color negro expresaba poder, fuerza y seriedad.

Los protestantes de Inglaterra, Flandes o Alemania también adoptaron el estilo español y prácticamente durante todo el siglo XVII continuaron utilizando los ropajes negros característicos de ese estilo.

En Francia e Italia, por el contrario, se utilizó durante el siglo XVII un estilo más liviano y colorista, del cual derivó el fastuoso estilo francés, impulsado por Luis XIV, que desde finales de siglo XVII y principios del XVIII se extendería a toda Europa.

El País Vasco también tuvo su protagonismo en la difusión de estos fastuosos estilos. Desde el siglo XVI en la moda femenina se generalizó la utilización de vestidos dotados de estructuras rígidas. Para la fabricación de dichas estructuras

2



Don Diego del Corral y Arellano.

DIEGO VELÁZQUEZ
Museo del Prado (Madrid)
1632

3



Doña Antonia de Ipeñarrieta y Galdós y su hijo don Luis.

DIEGO VELÁZQUEZ
Museo del Prado (Madrid)
1634

zurrunez osatutako jantziak nagusitu ziren. Egitura zurrun horiek egiteko euskaldunek harrapatutako balea bizarrak erabiltzen zituzten Europa osoan.

Kontuan izan behar da XVII. mende hasiera arte euskaldunak izan zirela baleak industrialki arrantzatzen zituzten bakarrak. Horren ondorioz, besteak beste, egitura zurrunak zituen jantzietako bat “vasquiña” deitzen zen (vasco hitzetik eratorria) eta ingelesez egitura zurrun horiek “basque” deitzen dira.

Luxuzko jantzi hauekin batera, gorteetan eta jauregietan kosmetiko eta lurrin aberatsak erabiltzen zituzten. Horiek ekoizteko funtsezkoak ziren gaien artean katxaloteen esperma eta anbar grisa aipatu behar ditugu. XVIII. mende erdialderarte euskal baleazaleak izan ziren katxaloteak harrapatzen eta, ondorioz, bi gai garesti horiek industrialki ekoizten zituzten bakarrak. Euskal jostunek ere pisu handia izan zuten BERPIZKUNDE garaiko janzkera estiloen garapenean.

Garai hartan jostunen lanbideak prestigio handia eskuratu zuen. Erregeez gain, nobleek eta merkataritzan aberastutako hainbatek ere luxuzko jantziak eskatzen zituzten. Beraz, han eta hemen, izen handiko jostunak sortu ziren, besteak beste, Euskal Herrian bertan.

Euskal jostun haietako zenbait goi mailara iritsi ziren, garaiko monarka boteretsuenen zerbitzura egin baitzuten lan. Denen artean, ordea, Juanes de Alcega aipatu behar dugu, European lehen aldiz jostintza inguruko jakintzak liburu batean bildu eta argitarara eman zituen jostun euskalduna.

se utilizaban, en toda Europa, las barbas de las ballenas cazadas por los vascos.

Hay que tener en cuenta que hasta principios del siglo XVII los vascos fueron los únicos que capturaban ballenas a escala industrial. Esta es la razón por la que uno de los citados atuendos de armazón rígido se denominaba “vasquiña” (derivada de la palabra vasco), mientras que en inglés la propia estructura se conoce como “basque”.

Junto con estos ostentosos ropajes, en las cortes y palacios se utilizaban asimismo caros cosméticos y perfumes. Entre los elementos necesarios para su elaboración se encontraban el esperma y el ámbar gris de los cachalotes, siendo los vascos los únicos que se dedicaron a su captura hasta mediados del siglo XVIII y, en consecuencia, los únicos productores de ambas preciadas materias de manera industrial. Los sastres vascos también tuvieron gran importancia en el desarrollo de la suntuosa moda del Renacimiento.

En aquella época el oficio de sastre adquirió gran prestigio. Además de los monarcas, también los nobles y los enriquecidos con el comercio demandaban lujosas vestimentas. En consecuencia, en el País Vasco, al igual que en otros lugares, surgieron sastres de renombre.

Algunos de estos sastres vascos alcanzaron la cúspide del arte y actuaron al servicio de algunos de los más poderosos monarcas de la época. Entre todos ellos, hay que destacar la figura de Juan de Alcega, el sastre vasco que, por primera vez en Europa, reunió y publicó en un libro todos los conocimientos de la sastrería.

02

OIHALAK
LOS TEJIDOS

4



Merkatartzaren alegoria.

Alegoría sobre el comercio.

JOST AMMAN
Deutsche Fotothek
c.1560

**Ehulea.
Tejedor.**

JOST AMMAN
Deutsche Fotothek
Das Ständebuch, 1568

5



Oihalgintzaren garrantzia estrategikoa XVI. mendeko Europan. Europako manufaktura

Behe Erdi Aroaz geroztik oihalgintza zen Europako industria jarduera nagusia eta oihalak ziren nazioarteko komertzio-sareetan sal-erosten ziren produkturik garrantzitsuenak.

Izurrite Beltzaren ondoren, luxuzko oihalez gain, kalitate ertainekoen ekoizpenak gorakada izugarria izan zuen. Europako hainbat herrialdeetan hasieran errejio mailako merkatuetara zuzenduta zeuden ekoizpen zentruak, XV. menderako atzerriko merkatuetara zabaldu ziren ¹.

Oihalgintzaren inguruan sortutako merkataritza sare hauek izan ziren beste hainbat manufaktura eta industria ekoizpenen nazioarteko merkaturatzea ere ahalbidetu zutenak ².

La importancia estratégica de la industria textil en la Europa del siglo XVI. La manufactura en Europa

Desde la Baja Edad Media las manufacturas textiles fueron la principal actividad industrial de Europa y los tejidos constituían el principal expediente de las redes de comercio internacional.

Tras la Peste Negra (1348), además de las telas lujosas, la elaboración de tejidos de calidad media se incrementó de forma considerable. Las principales manufacturas textiles europeas, en un principio destinadas a mercados de ámbito regional, durante el siglo XV se expandieron a nivel internacional ¹.

Las redes mercantiles surgidas alrededor de la actividad textil fueron las que posibilitaron la comercialización a escala internacional de otras manufacturas y productos industriales ².

¹ Aipatzekoak dira, besteak beste, Ingalaterra, Flandria, Frantziako mendebaldeko kostalde, Gaztela, Katalunia edo Italiako iparraldeko artilezko oihalak, Frantziako ekialdeko eta Flandriako lihozko oihalak eta abar.

² Besteak beste, euskal burdina aipatu behar dugu, mendebaldeko Europako herrialde guztietara esportatzen zena.

¹ Destacan sobre todo los paños de lana de Inglaterra, Flandes, costa oeste de Francia, Castilla, Cataluña o el norte de Italia, las telas de lino del este de Francia y Flandes, etc.

² Entre otros, hay que hacer referencia al hierro vasco que se exportaba a todos los países de Europa occidental.

6

**Ehunki merkatua
Flandeseko
S'-Hertogenbosch hirian.
Mercado de tejidos
en la ciudad flamenca de
S'-Hertogenbosch.**

Anonimoa / Anónimo
Noordbrabants Museums
c.1530



Oihalen komertzioa Euskal Herrian

Oihalgintzaren inguruan sortutako nazioarteko komertzio sare honetan bete-betea parte hartzen zuen Euskal Herriak. Iberiar Penintsulatik Flandriara, Ingalaterrara edo Frantziara esportatzen ziren produktuen ordez gehien inportatzen zen gaia oihalak ziren.

Trafiko hau, hein handi batean euskal portuetatik barrena bideratzen zen, izan ere, euskal ontziak Iberiar Penintsula eta Europa Iparraldearen arteko eta Mediterraneo eta Atlantikoa arteko garraio eta itsasbideetan nagusitu egin baitziren ¹.

El comercio textil en el País Vasco

El País Vasco participaba de forma directa en la red internacional del comercio de telas. Constituían el principal producto que se importaba desde Flandes, Inglaterra o Francia, en contrapartida de las exportaciones de la Península Ibérica.

Este tráfico, se encaminaba en gran medida desde los puertos vascos. De hecho, las embarcaciones vascas predominaron en el transporte y en las rutas marítimas desplegadas entre la Península Ibérica y el Norte de Europa, y entre el Mediterráneo y el Atlántico ¹.

¹ Adibidez, XV. mende erdi aldera Gaztelatik Bristolera joaten ziren ontzien %90 baino gehiago euskal jatorrikoak ziren. Mende horren amaieran Iberiar Penintsulatik Bristolera esportatzen zen gai nagusia euskal burdina zen eta ordainetan oihalak ekartzen zituzten. 1482 eta 1501 artean Bilbo eta London artean zebiltzan ontzi denak euskal jatorrikoak ziren: Bilbotik 3.000 tona burdin eraman eta Londondik 8.000 oihal ale baino gehiago ekarri zituzten.

¹ Por ejemplo, más del 90% de las embarcaciones que acudieron de Castilla a Bristol a mediados del siglo XV eran de origen vasco. A finales de ese siglo el principal producto que se exportaba desde la Península a Bristol era el hierro vasco, trayendo paños a la vuelta. Todos los barcos que realizaron la ruta entre Bilbao y Londres desde 1482 a 1501 eran de origen vasco: desde Bilbao se exportaron 3.000 toneladas de hierro y desde Londres se importaron más de 8.000 piezas de telas.

7



Bizkaiko emakumea.

Mujer de Bizkaia.

CESARE VECELLIO

Habiti antichi et moderni di tuto il mondo, Venezia

1598

8



Ehungailua, lihozko edo artilezko haria ehuntzeko makina.

Telar, máquina para tejer el hilo de lino o lana.

Gordailua, Gipuzkoako Foru Aldundia (Irun)

1 Zenbait hiribilduetan ekoizle hauek beren interesak babesteko kofradiak sortu zituzten. Adibidez, Zangotza, Iruña eta Lizarran (Nafarroa). Bizkaian, Durangoko oihalgileen kofradiak 1496an idatzit zuen bere araudia eta Gipuzkoan, Bergarakoak, 1497an.

2 Gainera, artile eta oihal komertzioaren baitan eraikitako nazioarteko merkatu-sareak funtsezkoak ziren burdina bezalako beste euskal ekoizkinak ere nazioartean merkaturatzeko.

3 1595ean Gipuzkoako Batzar Nagusietara jo zuten Gipuzkoako artile esportazioa galeratzeko eskatuz. Artile eskasiaren erruz ezin zuten bete Armadarekin sinatua zuten kontratua Pasaian eraikitzen ari ziren galeoietako langileek behar zituzten kapak ekoizteko. Batzarrak, ordea, ez zituen kapagileen eskakizunak aintzat hartu.

1 En algunas villas, como por ejemplo Sangüesa, Pamplona y Estella (Navarra), estos productores crearon cofradías para defender sus intereses. En Bizkaia, la cofradía de fabricantes de paños de Durango redactó sus ordenanzas en 1496, y en Gipuzkoa, la de Bergara en 1497.

2 Además las redes mercantiles establecidas a nivel internacional para el comercio de la lana y los tejidos, eran fundamentales para comercializar en el extranjero otros productos del País Vasco como el hierro.

3 Así, en 1595 recurrieron a las Juntas Generales de Gipuzkoa para solicitar que se prohibiera la exportación de lana de Gipuzkoa. Debido a la escasez de materia prima no podían cumplir con el contrato firmado con la Armada para abastecer de capas a los empleados en la construcción de galeones en Pasaia. Sin embargo, las Juntas no tomaron en cuenta las peticiones de los fabricantes de capas.

Euskal oihalgintzaren garrantzia eta arazoak

Importancia y problemas de la actividad textil vasca

Euskal artile oihalgintza

Behe Erdi Aroan Euskal Herriko oihalgintzak ere garapen garai bat hasi zuen. “Marraguero” edo “Pelaire” deituriko euskal oihalgileek kalitate baxuko edo ertaineko artile oihalak ekoizten zituzten, bertako kalitate gutxiako artilea erabiliaz ¹. Dena den, oihalgintza bigarren mailako industria jarduera bat izan zen Euskal Herrian.

Artile merkatariek ez zuten inoiz interesik izan industria hori garatzeko, beren irabazi iturri nagusia Gaztelako, Aragoiko edo Nafarroako kalitate handiko edo ertaineko artileak esportatzea baitzen. Industria honen garapenak artile komertzioaren gogoko ez zituzten aldaketak eragin zitzaizkenez bildur ziren ².

Merkatariek, agintariek eta nobleek babesten zuten jarduera burdingintza zen, burdina baitzen esportaziora zuzendutako euskal produktu nagusia.

Burdingintza gainera, beste jarduera estrategiko batzuekin estuki loturik zegoen, hau da, armagintza eta ontzigintzarekin.

XVI. mendean zehar artile esportazioaren garapenarekin batera, bertako artile oihalgintzak behera egin zuen.

Artile merkatariek bertan ekoizten zen kalitate gutxiako artilea ere esportatzen hasi ziren eta ondorioz, mantak eta kapak egiten zituzten marrageroek geroz eta artile gutxiago eta garestiagoa zuten eskura ³.

Fabricación vasca de paños de lana

Durante la Baja Edad Media la fabricación de tejidos también conoció un período de expansión en el País Vasco. Los productores vascos llamados “Marraguero” o “Pelaire” elaboraban paños de lana de calidad baja o media mediante lana autóctona ¹. De todos modos, en el País Vasco la producción textil fue una actividad industrial de carácter secundario.

Los comerciantes de lana no tuvieron ningún interés en desarrollar esa industria ya que su principal fuente de riqueza era la exportación de lana de alta y mediana calidad de Castilla, Aragón o Navarra. Temían que el desarrollo de la actividad textil pudiera generar cambios no deseados en el comercio de la lana ².

La actividad promovida por los comerciantes, gobernantes y nobles era la siderometalúrgica, siendo el hierro el principal producto de exportación vasco.

Además, esta producción estaba estrechamente ligada a otras actividades estratégicas como la fabricación de armas y la construcción naval.

A lo largo del siglo XVI, al mismo tiempo que aumentaba la exportación de lana, la producción local de paños decayó.

Los comerciantes de lana comenzaron también a exportar lana autóctona de baja calidad, y de esta manera, restaba cada vez menos cantidad de lana y cada vez más cara ³.

9



Tranga, lihoa jotzeko tresna, kanpoko azal egurtsua askatzeko eta barruko mintza azalarazteko.

Agramadera, herramienta para machacar el tallo del lino para obtener la fibra textil.

10



Harilkaria, harilkatzeko tresna.

Torno de hilar.

Gordailua, Gipuzkoako Foru Aldundia (Irun)

Gordailua, Gipuzkoako Foru Aldundia (Irun)

Euskal liho oihalgintza

Gipuzkoa eta Bizkaiko oihal industria nagusia emakumeen esku zegoen lihoaren ekoizpena zen.

Batez ere nekazaritza bizi ziren biztanle xumeen irabazi iturri garrantzitsuetakoa zen liho oihalgintza. Sendi gehienetako gizasemeak, etxetik kanpo, burdinoletan, basolanetan, ikazkintzan, garraio lanetan edo baleatarra eta bakailaoetara zihoazen ontzietan zebiltzan bitartean, etxe ekonomiaz arduratzen ziren emakumeen diru iturri nagusienetakoa zen, etxe giroan, auzolanean burutzen zen jardura hori.

XVI. mendean Coimbra-ko (Portugal) linaziz betetako laupabost karabela bidaltzen zituzten urtero merkatari portugaldarrek Deba eta Donostiako portuetara ¹.

Bertako merkatariak arduratzen ziren hazi hori herrietan banatzeaz eta ondoren, etxeetan ekoiztutako oihal horiek merkaturatzen zituzten. Haietako asko Gaztelara, Aragoira eta Ameriketara ere esportatzen zituzten ².

¹ Guztira 12.000 eta 20.000 linazi-zaku artean ekartzen zituzten (hau da, urteko 667,5 eta 1.112,5 tona linazi artean).

² Francisco de Beroiz donostiarra, Miguel de Beroizen semea, zen XVI. mende amaiera eta XVII. mende hasiera aldera salerosketa honetan parte hartzen zuen merkatari nagusienetakoa.

Fabricación vasca de tejidos de lino

La elaboración del lino constituía la principal industria textil de Gipuzkoa y Bizkaia, y estaba en mano de las mujeres.

La fabricación de tejidos de lino era una de las principales fuentes de ingresos para los miembros de los estratos modestos de la sociedad, que básicamente vivían de la agricultura. En la mayoría de las familias, mientras los hombres se empleaban en actividades que se desarrollaban más o menos alejados del hogar, tanto en herrerías, astilleros, trabajos forestales o elaboración de carbón como enrolados en expediciones comerciales o de pesca de ballenas y bacalao, la economía doméstica era patrimonio de las mujeres.

En el siglo XVI, todos los años los comerciantes portugueses enviaban desde Coimbra (Portugal) a los puertos de Deba y Donostia cuatro o cinco carabelas cargadas de semillas de lino ¹.

Los mercaderes locales se encargaban de distribuir esas semillas entre las localidades y, más tarde, de comercializar los tejidos producidos en los hogares. Parte importante de esta producción se exportaba, también, a Castilla, Aragón y América ².

¹ En total, traían entre 12.000 y 20.000 sacos de semilla de lino (es decir, entre 667,5 y 1.112,5 toneladas anuales de semillas de lino).

² El comerciante donostiarra Francisco de Beroiz, hijo de Miguel de Beroiz, fue entre fines del siglo XVI y principios del XVII uno de los principales participantes en el negocio del lino.

03

ARTILEA

LA LANA



Burgosko eta Donostiako ikuspegia.
Vista de Burgos y San Sebastián.

JORIS HOEFNAGEL, FRANZ HOGENBERG
 Gordailua, Gipuzkoako Foru Aldundia (Irun)
 Civitates Orbis Terrarum, 1572

1 Anberes Europako portu garrantzitsuenetako batean bilakatu zen eta bertatik bidaltzen ziren Iberiar Penintsulara Flandriar ekoiztutako oihalak.

2 Kotsulatu bat, merkatarien interesak babesteko elkarte bat izateaz gain, merkataritza epaitegi bat zen.

3 Santander, Bilbo, Deba eta Donostiako portuetan itsasoratan zen Gaztelako artilearen kopuru handiena eta Burgosko artile merkatariek portu horietako merkataria eta ontzijabeen zerbitzuak kontratatzen zituzten artilea esportatzeko. Elkarren arteko harreman hauek funtsezkoak izan ziren euskal merkataria, armadore eta ontzijabeak Burgosko merkatariek eskeintzen zituzten finantza zerbitzuez gozatzera iritsi zitezen.

1 Amberes se convirtió en uno de los puertos más importantes de Europa y desde allí se enviaban a la Península Ibérica los tejidos elaborados en Flandes.

2 Un Consulado, además de una institución para la defensa de los intereses de los mercaderes, constituye un tribunal de comercio.

3 La mayor parte de la lana de Castilla se embarcaba en los puertos de Santander, Bilbao, Deba y Donostia, y los comerciantes de lana de Burgos contrataban a los comerciantes y armadores de esos puertos para exportar su producto. Estos contactos resultaron fundamentales para que los mercaderes, armadores y propietarios de las embarcaciones pudieran llegar a disfrutar de los servicios financieros que ofrecían los mercaderes burgaleses.

Gaztelako artilea eta Burgosko merkatariak

Oihal-ekoizpenean beharrezko lehengaien salerosketa, nazioarteko merkataritza sareetako beste funtsezko atal bat zen. XV. mende hasieraz geroztik Iberiar Penintsulako artilea zen Europa iparraldeko edo Italiako artile oihal ekoizle gehienak hornitzen zituena. Gaztelan ekoizten zen merino artilea zen merkaturako artile onena eta garestiena, batez ere kalitate goreneko oihalak ekoizteko erabiltzen zena.

Kalitate ertaineko eta txikiko oihalak ekoizteko, aldiz, Aragoiko eta Nafarroako artileak erabiltzen ziren. XV. mendearen amaieraz geroztik Anberes-ek hartu zuen Brujas-en lekua artilearen helmuga nagusi bezala ¹.

Gaztelako artilearen merkaturatzea Burgosko merkatarien eskuetan zegoen eta Euskal Herriko eta Kantabriako kostaldean ontziak kontratatzen zituzten hura esportatzeko.

Merkatari aberats hauek beren interesak babesteko Universidad de Mercaderes de Burgos delako elkarteak sortu zuten XV. mende hasieran. 1494an elkarte hau izan zen Burgosko Kontsulatuari sorrera eman ziona ².

Burgosko merkatariak itzelezko irabaziak egin zituzten artile eta oihal merkataritzan eta, ondorioz, finantza zerbitzuak eskeintzen hasi ziren, beti ere Kontsulatuaren babesa eta abalarekin. Zerbitzu hauek berebiziko garrantzia izan zuten euskal itsas ekonomia garapenean ³.

Lana castellana y comerciantes burgaleses

La negociación de las materias primas necesarias para la elaboración de tejidos constituían una de las actividades fundamentales de las redes mercantiles internacionales. Desde inicios del siglo XV la lana de la Península Ibérica abastecía a la mayoría de los fabricantes de paños del norte de Europa e Italia. La lana merina producida en Castilla era la de mayor calidad y la más cotizada, y se destinaba, sobre todo, a la elaboración de tejidos de máxima calidad.

La producción de paños de calidad media e inferior, sin embargo, se realizaba con lanas de Aragón y Navarra. Desde finales del siglo XV Amberes sustituyó a Brujas como principal destino de la lana ¹.

La comercialización de la lana de Castilla estaba en manos de los mercaderes de Burgos, y para su exportación contrataban barcos de la costa del País Vasco y Cantabria.

Para defender sus intereses, estos ricos comerciantes constituyeron a principios del siglo XV la asociación denominada Universidad de Mercaderes de Burgos. Esta institución dio lugar a la creación del Consulado de Burgos en 1494 ².


Los comerciantes de Burgos enriquecidos con el tráfico de la lana y los tejidos, comenzaron a ofrecer servicios financieros, contando siempre con la protección y aval del Consulado. Este hecho tuvo gran importancia en el desarrollo de la economía marítima vasca ³.

12

**Bilboko hiria.
Vista de Bilbao.**

JORIS HOEFNAGEL, FRANZ HOGENBERG
Gordailua, Gipuzkoako Foru Aldundia (Irun)
Civitates Orbis Terrarum, 1575





Balea harrapaketaren eszena.

Escena de caza de ballena.

Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa
Zumarragako Bataiatuen eta Ezkonduen liburua
Archivo Diocesano de San Sebastián
Libro de Bautizados y Casados de Zumarraga
1526-1569

Gaztelako artilea eta euskal bale-olioa

XVI. mendeko erdi aldean Ternuara zihozten euskal arrantzontzi askok Burgosen egiten zuten aseguroa ¹.

Balea-arrantzak lotura estua zuen artile ekoizpen eta komertzioarekin. Balea-olioaren edo sainaren erabilera nagusienetako bat artilea eta artilezko oihalak garbitzeko beharrezko xaboia egitea zen.

Urtero-urtero ehundaka tona artile garbitzeko xaboi tona ugari behar ziren. Xaboi hau guztia ekoizteko olio tona asko behar ziren eta euskal baleontziek ekartzen zuten balea-olioa oso egokia zen horretarako.

Beraz, artilearen eta oihalen komertzio-sare berdinetan merkaturatzen zen euskal balea-olioa ere ².

Lana castellana y saín vasco

A mediados del siglo XVI muchas de las naos dedicadas a las pesquerías de Terranova estaban aseguradas en Burgos ¹.

La actividad ballenera estaba estrechamente ligada a la producción y comercialización de la lana. Uno de los usos principales de la grasa de ballena o saín era precisamente la fabricación de jabones para lavar la lana y los paños.

El lavado de cientos de toneladas de lana requería todos los años de toneladas de jabón. Y para la fabricación de jabón se necesitaban, a su vez, muchas toneladas de aceite, siendo la grasa de ballena que traían los balleneros vascos muy adecuada para tal fin.

De este modo, el saín de los vascos se comercializaba utilizando las mismas redes mercantiles de la lana y los tejidos ².

¹ Aipagarriak dira Burgosko merkatariek ontzi eraikuntzan edo Ternuako espedizioetan egindako inbertsioak, baina, batez ere, itsas jardueren aseguraketan gailendu ziren.

² Europako iparraldeko industria gunez gain, Nafarroan, Aragoien eta Gaztelan zeuden bere salmenta gune nagusienak. 1579ean Francisco de Arriolak, artile salerosketan interesak zituen Debako armadore sendi garrantzitsuenetako bateko kide zenak, balea-olioarekin xaboia ekoizteko monopolioa ezartzeko onespena eskatu zien Gipuzkoako Batzar Orokorrei.

¹ A pesar de que los mercaderes burgaleses realizaron inversiones en la construcción naval y en las expediciones a Terranova, destacaron, sobre todo, asegurando dichas actividades marítimas.

² Además de los grandes centros textiles del norte de Europa, sus principales mercados se localizaban en Castilla, Navarra y Aragón. En 1579, Francisco de Arriola, miembro de una importante familia con intereses en el comercio de la lana y armadores de Deba, solicitó a las Juntas Generales de Gipuzkoa autorización para el establecimiento del monopolio para elaborar jabón con grasa de ballena.

14



Red Bayn aurkituriko itsasontziaren kroskoaren modeloa.
Modelo de los restos del casco del pecio de Red Bay.

PARKS CANADA

Gordailua, Gipuzkoako Foru Aldundia (Irun)

1992

Artile komertzioa eta San Juan baleontzia

Baleontzien eraikuntzan eta armamentuan inbertitzen zuten negozio-gizonetako askok artile negozioan interes handiak zituzten. Adibide bezala 1565ean Canada-ko Red Bay-en onduratu zen San Juan baleontzia hartuko dugu, bere erreplika zehatzaren eraikuntza Albaola, Euskal Itsas Faktorian ikus dezakegu bera.

Ternura baleatara joateko espedizioa antolatu zuten armadoreek, Donostiako Juanes de Portu eta Miguel de Beroizek, baleontziaren edukin osoa Burgosen aseguratu zuten. Miguel de Beroizek Burgosko merkatariekin harreman estuak zituen ¹¹.

El comercio de la lana y el ballenero San Juan

Muchos de los hombres de negocios que invertían en la construcción y armamento de balleneros tenían también grandes intereses en el negocio de la lana. Buen ejemplo de ello es el ballenero San Juan, hundido en 1565 en Red Bay, Canadá, cuya réplica exacta está construyendo Albaola, en la Factoría Marítima Vasca.

Juanes de Portu y Miguel de Beroiz, los armadores de San Sebastián que organizaron la expedición ballenera a Terranova aseguraron la totalidad del contenido de la nao en Burgos. Miguel de Beroiz mantenía estrechas relaciones con los mercaderes burgaleses ¹¹.

¹¹ Urte askotan Ingalaterra eta Frantziarekin hainbat produkturen –burdina, artilea, oihalak, arraina eta abar–merkataritzan jardun ondoren, gutxienez 1578 eta 1605 artean Gaztelako artile merkatarien “encomendero”-a edo ordezkaria zen Donostiako kaian. Bere eginbeharrak hauek ziren: Gaztelatik zetorren artilea jaso eta gorde, hura esportatzeko ontziak kontratatu, ordainetan atzerritik ekarritako oihalak eta gainerako produktuak jaso eta Gaztelara bidali. Bere seme Juan Pérez de Beroiz ere Gaztelako eta Gasteizko merkatarien “encomendero” edo ordezkari bezala jardun zen XVII. mende hasieraz geroztik. Honen seme Luis de Beroizek ere Donostiako artile komertzioan parte hartzen jarraitu zuen XVII. mendeko bigarren erdialdean zehar, nahiz eta ordurako merkataritzak hau oso gutxitua zegoen.

¹¹ Tras muchos años dedicado al comercio de diferentes productos –hierro, lana, tejidos, pescado, etc.– con Inglaterra y Francia, al menos entre 1578 y 1605 actuó de “encomendero” o representante de los comerciantes de lana castellanos en el puerto de San Sebastián. Se encargaba de recibir y almacenar la lana procedente de Castilla y de contratar los barcos para su exportación; también recibía los tejidos y demás productos que provenían del extranjero para su envío a Castilla. Su hijo, Juan Pérez de Beroiz, desempeñó de igual manera el cargo de “encomendero” o representante de los mercaderes de Castilla y Vitoria a partir de principios del siglo XVII. También el hijo de éste, Luis de Beroiz, continuó dedicándose al comercio de la lana durante la segunda mitad del siglo XVII, si bien para entonces esta negociación había disminuido notablemente en San Sebastián.

04

**MUNDUKO
KOLOREAK**

**COLORES
DEL MUNDO**



15

Tindatzailea.

Tintorero.

JOST AMMAN
Deutsche Fotothek
Das Ständebuch, 1568

Oihalen prezioaren zati handiena, batez ere luxuzkoak zirenenak, koloreari, hau da, tinteari zegokion.

Hainbat kolore bertako landareak erabiliaz eskuratu zitezken baina beste batzuk urrutitik ekarritako produktu garestiekin lortzen ziren. Ondorioz, tindatzeko gaien komertzioa oihal merkataritzaren barneko arlorik garrantzitsuenetakoa eta garestienetakoa izan zen mendeetan zehar.

Kolorerik garestienak purpura, urdina eta gorria ziren. Purpura Mediterraneo ekialdeko molusko baten tintatik ateratzen zuten. Kolore guztietan garestiena zenez erreegen eta goi mailako eleizgizonen jantziak tindatzeko erabiltzen zen.

Urdina, mendeetan zehar ekialde urrunetik zetorren Indigoarekin lortzen zen. Indigoa, añil deituriko landaretik ateratzen zen. Gorria zen purpuraren ondoren kolorerik garestiena. Erdi Aroan kalitatezko gorriak lortzeko Armeniako kotxinila zomorroa erabiltzen zen ^[1].

Parte importante del precio de las telas, sobre todo de las de lujo, venía marcado por el color, es decir, por el tinte.

Muchos de los colores se podían obtener a partir de plantas autóctonas, pero otros únicamente se conseguían mediante costosos productos que llegaban desde tierras lejanas. Por esta razón, durante muchos siglos, el comercio de las materias tintóreas fue el más importante y costoso de los vinculados al negocio textil.

Los colores más caros eran el púrpura, el azul y el rojo. El púrpura se obtenía a partir de la tinta de un molusco del Mediterráneo oriental. Al ser el más caro de todos los colores se destinaba al teñido de las vestimentas de los monarcas y clérigos de mayor rango.

El azul, en cambio, se obtuvo durante siglos del índigo, un producto que se extraía de una planta denominada añil, que procedía del lejano oriente. El rojo era, tras el púrpura, el color más caro. En la Edad Media el rojo de calidad se obtenía a partir de un insecto: la cochinilla de Armenia ^[1].

^[1] Ekialdetik ekarritako indigoaren edo kotxinilaren merkaturatzea mendeetan zehar beneziarren eta genoarren eskuetan egon zen, baina XV. mendean turkoen hedapenaren ondorioz Europa mendebaldean hainbat tindatzeko gai ekoizten eta esportatzen hasi ziren. Besteak beste, aipatzekoak dira gorria eskuratzeko Napoliko, Andaluziako, edo Poloniako kotxinila, eta Kataluniako, Frantzia erdialde eta hegoaldeko edo Abruzzoetako azafraia, eta urdina lortzeko Languedoc eta Normandiako pastela eta abar. Amerikaren aurkikuntzaren ondoren gorria eskuratzeko beste gai batzuk nagusitu ziren: Brasilgo makila, Campecheko makila eta Mexicoko grana edo kotxinila.

^[1] Las importaciones desde oriente del índigo o de la cochinilla permanecieron durante siglos en manos de venecianos y genoveses, si bien en el siglo XV, y debido al avance de los turcos, en Europa occidental se comenzaron a producir y exportar diversos productos para la obtención de tintes. Así, para el tinte rojo podemos mencionar la cochinilla de Nápoles, Andalucía o Polonia y el azafrán de Cataluña, centro y sur de Francia o los Abruzzos; para el azul, el pastel de Languedoc y Normandía; etc. Tras el descubrimiento de América se impusieron otros productos para obtener el color rojo: el palo de Brasil, el palo de Campeche y la grana o cochinilla de México.



Indigoa ● Índigo

Indigoa: portugaldarrak eta gero holandarrak zuzenean Europara ekartzen hasi zirenean bere prezioak merketzera egin zuen. Gainera espainiarren menpekotasian Ameriketako errealdak zuten landare hau eta handik ere masiboki bidaltzen zen Europa aldera.

Índigo (añil): su precio disminuyó cuando los portugueses, y más tarde los holandeses, empezaron a importarlo directamente a Europa. Además, en la América española también se introdujo la producción de esta planta y desde allí se empezó a enviar de forma masiva a Europa.

Campecheko makila ● Palo de Campeche

Campecheko makila: 1575az geroztik izugarri handitu ziren gai honen bidaltzeak Sevillara. XVII. mendeko euskal kontrabando sareetan ere salerosten zen.

Gipuzkoatik zuzenean Ameriketako koloniekien, legez kanpo, merkataritza egiten zuten ontziek ekartzen zuten gai nagusienetako bat zen.

Palo de Campeche: los envíos de este producto a Sevilla aumentaron considerablemente a partir de 1575. En el siglo XVII también las redes de contrabando vasco traficaban con palo de Campeche.

Era uno de los principales productos que traían los barcos que comerciaban, al margen de la ley, directamente desde Gipuzkoa con las colonias americanas.



Pastela ● Pastel

Pastela (urdinbelarra): gai honen ekoizpenak berebiziko garrantzia izan zuen Frantzia hego-mendebaldean. Bordeleko portua zen pastel esportatzaile nagusia eta Europako kalitatezko oihalgintza gune garrantzitsuetara esportatzen zen: Flandria, Ingalaterra eta Espainia (Segovia).

Pastel (hierba pastel, isatide o glasto): la producción de esta sustancia fue muy importante en el suroeste de Francia. Burdeos fue el principal puerto exportador de pastel hacia los centros de fabricación de tejidos de calidad más relevantes de Europa: Flandes, Inglaterra y España (Segovia).

Euskal garraiolariek eta itsasgizonek zeresan handia izan zuten garraio honetan: Bordelela burdinez eta balea-olioz zamaturik joaten ziren euskal ontzi askoren itzulerako zama pastela izaten zen eta ondoren Ingalaterrara edo Flandriara garraiatzen zuten **1**.

Los transportistas y marinos vascos participaron activamente en este tráfico: muchos de los barcos vascos que iban a Burdeos con hierro y grasa de ballena, partían de allí cargados con pastel que transportaban a Inglaterra y Flandes **1**.

1 Merkataritza honek gainbehera hasi zuen XVI. mende erdi aldetik aurrera Asiako ekialde urrunean edo Ameriketako ekoiztako indigoak bere lekua hartu zuenean.

1 Esta actividad comercial comenzó a decaer a partir de mediados del siglo XVI, cuando el pastel fue sustituido por el indigo producido en el Lejano Oriente asiático o en América.

Grana edo kotxinila ● Grana o cochinilla

Grana edo kotxinila: nopal izeneko kaktusetan ekoizten den zomorrotik ateratzen den margo hau espainiarrak iritsi baino lehenago garrantzi handia zuen Mexicon.

